



ORIOK OUDALA

Euskaraz
bizi-bizi

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2018ko ekainaren 26a, asteartea

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:35 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:55

BERTARATUAK:

Alkatea

Jose Angel Zaldua Iparraguirre

Zinegotziak

Angel del Hoyo Bravo, Lourdes Salsamendi Goñi, Aitziber Campos Morey, Eugenio Cotado Iturain, Elixabete Bello Martija, Emeterio Iribar Sorazu, Bixente Lasa Karrikaburu, Aizpea Ubegun Manterola, Jose Angel Iparraguirre Alberdi, Iñigo Arruti Agirre eta Ana Priede Merchan.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gotzon Igoa Agirrezabal zinegotziak (EH Bildu) adierazi du ezin zuela etorri eta, beraz, ez du bilkuran parte hartu.



Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren akta hauen zirriborroak: 2018ko otsailaren 21eko ezohiko bilkurakoa; eta 2018ko apirilaren 24ko eta 2018ko maiatzaren 29ko ohiko bilkurakoak.
- 2.- Onartzea, egoki bada, Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra lantzeko helburuak eta irizpide orokorrak.
- 3.- Onartzea, egoki bada, Udalaren 2018rako lanpostu zerrenda aldatzea.
- 4.- Onartzea, egoki bada, udal kanpineko zuzendariaren plaza jabetzan hornitzeko hautaketa prozesua arautuko duten oinarriak aldatzea.
- 5.- Onartzea, egoki bada, turismo, merkataritza eta ostalaritza departamenturako maila ertaineko teknikariaren plaza jabetzan hornitzeko hautaketa prozesua arautuko duten oinarriak aldatzea.
- 6.- Onartzea, egoki bada, EUSKARALDIA udal barruan sustatzeko erakunde-adierazpena.
- 7.- Onartzea, egoki bada, EH BILDU talde politikoak aurkeztutako mozioa, Josu Arruti oriotarrari babesa eta elkartasuna adierazteko.
- 8.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN AKTA HAUEN ZIRRIBORROAK: 2018KO OTSAILAREN 21EKO EZOHIKO BILKURAKOA; ETA 2018KO APIRILAREN 24KO ETA 2018KO MAIATZAREN 29KO OHIKO BILKURAKOAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA udalbatzarraren akta hauek: 2018ko otsailaren 21eko ezohiko bilkurakoa; eta 2018ko apirilaren 24ko eta 2018ko maiatzaren 29ko ohiko bilkurakoak.



2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA LANTZEKO HELBURUAK ETA IRIZPIDE OROKORRAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra lantzeko helburuak eta irizpide orokorrak honako hauek dira, hitzez hitz:

PROPOSAMENA: ORIOKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA LANTZEKO HELBURUAK ETA IRIZPIDE OROKORRAK

2013ko uztailaren 24an Orioko Udalak erabaki zuen Hiri Antolamenduko Plan Orokor berria landu eta tramitatzea, aurreko plana berrikusiz.

Aurrerago, 2014ko irailean HAPOna prestatu ondoren, Orioko Udalak, 2014ko abenduaren 23an, erabaki zuen Plan Orokor berriaren Aurrerakina jendaurrean jartzea bi hilabetez. Bi hilabetezko tarte horretan, besteak beste, Aurrerapenaren proposamenak azaldu eta eztabaidatzeko bost saio egin ziren herritarrekin.

Aurrerapena azaltzeko egindako bost saioetan planteatutako galdera eta iradokizunez gain, 16 iradokizun-idatzi aurkeztu ziren jarritako epearen barruan.

Ondoren galdera eta iradokizun horiek guztiak aztertu zituzten HAPOnaren erredakzio-taldeak (Orioko HAPOna berrikuspenaren Aurrerapenari aurkeztutako iradokizunak baloratzeko txostena, 2015eko maiatza) eta udal arkitekto Pilar Azurmendik (2015eko uztailleko txostena).

Epez kanpo beste 12 proposamen aurkeztu ziren. 2018ko otsailean erredakzio-taldeak balorazio-txostena egin zuen jendaurreko tramitea bukatu ondoren aurkeztutako Orioko HAPOnaren berrikuspenaren aurrerapenari aurkeztutako iradokizunei buruz. Era berean udal arkitektoak txostenak egin zituen gaiari buruz 2017ko abenduan eta 2018ko urtarrilean.

Horrez gain, Plan Orokor berriaren aginduzko ingurumen-ebaluazio estrategikoaren barruan, dagokion Hasteko dokumentua landu zen 2014ko irailean. Udalak horrela eskatu eta gero, Gipuzkoako Foru Diputazioko Ingurumen Departamentuak ebaluazio horren Irismenaren dokumentua egin zuen eta Orioko Udalari bidali zion 2015eko azaroaren 16an. Aurrerago, 2016ko urtarrilean, Departamentu horrek berak URAk Irismenaren dokumentu horri lotuta egindako txostena bidali zion Orioko Udalari.

Ingurumen-ebaluazioaren txostena eman zenetik denbora asko pasatu zenez, beste txosten bat eskatu zitzaion Foru Aldundiari. 2018ko apirilaren 24an Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuaren Irismen Dokumentu berria jaso zen.

Testuinguru horretan, gaiari buruz indarrean dauden hirigintza-legeetan ezarritakoaren arabera (2006ko ekainaren 30eko Lurzoruaren eta Hirigintzaren



Legearen 90.4 artikulua eta abar), Udalak HAPO berriaren behin betiko proiektua lantzeko helburuak eta irizpide orokorrak onartu behar ditu.

Horretarako, eta gorago aipatutako 2015eko maiatzeko eta uztailleko txosten teknikoetan azaldutakoa kontuan hartuz, hau proposatzen da:

1.- Berrestea 2014ko iraileko HAPOaren Aurrerapenean ezarritako helburu eta irizpide orokorrak, honela egokituak eta osatuak:

A.- HIRI IZAERAKO GARAPEN ETA KONTUEI DAGOKIENEZ

a) «1. Hirigune Historikoa» eremuko G etxadiaren antolamendua egokitzea Aurrerapenaren 2. alternatibara, eraikin berriaren profila honela finkatuz Aurrerapenaren grafikoetan azaltzen denaren arabera: BS (beheko solairua) + 3 goiko solairu. Portxe bat gehitzea eraikin horren Eusko Gudari kaleko fatxadaren beheko solairuan.

b) «2 Mutiozabal» eremuko antolamendua egokitzea Aurrerapenaren 1. alternatibara, gaur egun dauden unitate independenteak mantenduz eta Aita Lertxundi 40, 42, 44 eta 46 eraikinak kontsolidatuz. Zehaztea Aita Lertxundi 48-50 eraikinaren eremuaren baldintzak Aurrerapenaren 3. alternatibarako planteatutako irizpideen arabera: errio ondoko pasealekuaren aurreikuspena eta abar.

c) «3.1 Pilotalekua» azpieremuko antolamendua egokitzea Aurrerapenaren 1. alternatibara.

d) «3.2 Leunda altzariak» azpieremuko antolamendua egokitzea Aurrerapenaren 1. alternatibara.

e) Zehaztea «14. Dike» eta «Kofradia» eremuen antolamendu-baldintzak, irizpide hauen arabera:

- Optimizatzea kualitatiboki eta kuantitatiboki eremu horietako garapen urbanistikoa.
- Bermatzea bere bideragarritasun ekonomikoa.
- «14 Dike» eremuko antolamendua egokitzea Aurrerapenaren 2. alternatibara, eraikigarritasuna ere handituz, beharrezkotzat jotzen bada. Antolamendu- eta exekuzio-eremu ez-jarraia mugatzea, Dike eremuak eta Kofradiaren orubeak osatuko dutena.
- Aztertzea hitzarmen urbanistiko baten onarpena, erantzuna emateko Orioko Arrantzaleen Kofradiaren eta Orioko udalerriaren beharrei.



f) «15. Arocena» eremua bere horretan mantentzea, indarrean dagoen araudiaren arabera.

g) Aparkalekuen gaiari buruz hartu beharreko neurriak zehaztea, dagoen eskariari erantzuteko, horri buruz kontuan hartu behar diren gaiak baloratuz: legezko estandar urbanistikoak, autoa gutxiago erabiltzeko neurriak, oinezkoentzako eremuak irabaztea...

h) Itsaso eta lehorren arteko jabari publikoa babesteko zortasun-eremua zuzentzea Botaleku eremuan, itsasertzari dagokionez eskuduntza daukan administrazioak planteatutako terminotan.

i) «Aizperro» eremua bere horretan mantentzea, indarrean dagoen araudiaren arabera.

j) Aztertu eta zehaztea, egoki bada, beharrezko antolamendu-baldintzak, hiri-mugikortasuna hobetzeko Erribera kalea eta Bikamiotako errotonda lotuz.

k) Aztertu eta zehaztea, egoki bada, gaur egungo pilotalekua ordezkatzeko duen pilotaleku berriaren kokapena.

l) Aztertzea aukera Bikamiota eremuko Kabi Alai eta Uriberri partzela kontsolidatuetan eraikigarritasuna handitzeko.

B.- LURZORU URBANIZAEZINARI EDO INGURUNE NATURALARI DAGOKIONEZ

a) Kontsolidatzea indarrean dagoen plangintzak ezartzen duen «Palotak» eremuko lurren landa-izaera edo urbanizaezin-izaera, baztertuz eremu hori garapen urbanistikoetarako erabiltzea (bizitegiak).

b) Plan Orokorren gehitzea Motondo babestu eta berreskuratzeko neurriak, aurrez finkatutako eremuaren eta babes-mailaren arabera.

c) Zehaztea lurzoru urbanizaezinaren araubide urbanistikoa eta, testuinguru orokor horretan, honi dagokiona:

- Dauden eraikinak eta horiek tokiz mugitzeko aukerak.
- Erabilera bereziak (hipika, kanpina, hotela...).

2.- Jarraitzea Orioko Plan Orokor berria landu eta tramitatzeko lanekin eta, zehatzago esanda, planaren behin betiko proiektua prestatzea (lehen onarpeneko dokumentua).

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintza eta Ingurumena batzorde informatzaileak 2018ko ekainaren 22an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu



ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Zaldia (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Campos (EAJ), Cotado (EAJ), Bello (EAJ), Iribar (EH Bildu), Lasa (EH Bildu), Ubegun (EH Bildu) eta Priede (PSE-EE-PSOE), guztira **BEDERATZI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Kontrako botoak: Iparragirre (ORAIN) eta Arruti (ORAIN); guztira, **BI KONTRAKO BOTO**]:

ONARTZEA Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra lantzeko helburuak eta irizpide orokorrak, goian jasota dauden bezalaxe.

Emandako botoa azaltzeko, Jose Angel Iparragirre zinegotziak hartzen du hitza, ORAIN taldearen izenean, eta adierazten du bere talde politikoa ez dagoela onartu diren Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra lantzeko helburu eta irizpide orokorren aurka, baina kontrako botoa eman duela ez daudelako ados «14. Dike» eta «Kofradia» eremuen antolamendu-baldintzak zehazteko moduarekin. Esaten du hitzarmen urbanistikoa aurtengo martxoan eskatu zela eta, bere taldearen ustez, gaurko egunez, hitzarmen hori eginda eta onartuta egon beharko lukeela. Adierazten du, baita ere, ikusita Kofradiako eraikinaren urgentziazko egoera, bere talde politikoak defendatzen duela «14. Dike» eta «Kofradia» eremuak Orioko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorren aldaketa puntual baten bidez antolatzea.

Emeterio Iribar zinegotziak hartzen du hitza, EH Bilduren izenean, eta adierazten du azken aldia dela bere talde politikoak onartzen duela dokumentu bat euskaraz idatzia edo euskarara itzulia ez dagoena. Horrez gain, idatzi bat irakurtzen du, honela dioena hitzez hitz:

SERIOITASUN ESKE UDAL GOBERNUARI

Ia hiru urte pasatu dira Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren helburuak eta irizpideak onartzeko. Motelago ezin liteke. Helburu eta irizpideen dokumentuari eman diogun baietza ardura kontua da: dokumentu horrek berebiziko garrantzia du Orioko herriaren etorkizunari begira eta, oso berandu badator ere, gure onarpena izango du.

Gaur onartu ditugun helburu eta irizpide horiek “paper bustia” besterik ez dira izango, baldin-eta EAJren udal gobernuak jarraitzen badu HAPOn gaia azken hiru urteotako dinamikarekin lantzen.

Helburu eta irizpide horien baitan arlo askotako egitasmoak zehaztu eta planifikatu behar dira: ingurumena, eremu urbanoko planak, landa lurra, azpiegiturak, mugikortasuna... Asko dago egiteko eta ezer gutxi aurreratuta. Udal gobernu eraginkor bati lidergoa eta akordiotara iristeko borondatea exijitu behar zaio, eta horixe da, hain zuzen, EAJko udal gobernu honi ikusten ez dioguna.

Azken aldi honetan Kofradia eta Dike eremuko proposamenak izan ditugu mahai gainean. Martxoaren 3an jaso zuen Udalak Kofradiatik bidalitako hitzarmen



proposamen berri bat, eta hiru hilabete eta erdi pasatu behar izan dute gaiaz berekin bilera bat egiteko. Bitartean inolako mesederik egiten ez duten sasi-informazioak zabaldu dituzue: '6 altuerako etxebizitzak... Manhattan...'. Ez zaigu batere serioa iruditzen. Gai honek berehalako premia duela uste dugu eta, beranduenez, uztailen irtenbide bat izatea espero dugu.

Motondo, pilotaleku berriaren kokapena, mugikortasuna... proposamen asko daude mahai gainean. Orain artean erakutsi ez duen seriotasuna eskatzen diogu Orioko EAJri hemendik aurrera.

Aipatua izan delako, alkateak hartzen du hitza eta adierazten du bat datorrela Emeterio Iribar zinegotziak egindako eskariarekin eta udalbatzarrak onartu behar dituen dokumentuak euskaraz idatzita egon behar dutela gutxienez.

Alkateak, bestalde, «14. Dike» eta «Kofradia» eremuen antolamendu-baldintzak zehazteari dagokionez, balioa ematen dio hitzarmen urbanistiko baten onarpena aztertzeako erabakiari, horrek erantzuna emango dielako Orioko Arrantzaleen Kofradiaren eta Orioko udalerriaren beharrei. Adierazten du, baita ere, Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren espedientearen tramitazioa ez dela agintaldi honetako kontua bakarrik, espedientea orain dela 5 urte hasi baitzen; hau da, alkatetza EH Bilduk zeukan garaian.

Ana Priede zinegotziak (PSE-EE-PSOE) hartzen du hitza eta adierazten du bazela garaia Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra lantzeko helburuak eta irizpide orokorrak udalbatzarrean erabakitzeko, espedientearen tramitazioa asko luzatzen ari delako. Adierazten du ulertezina dela, esaterako, azken urte honetan kontu bakar hau erantsi izana: aztertzea hitzarmen urbanistiko baten onarpena, erantzuna emateko Orioko Arrantzaleen Kofradiaren eta Orioko udalerriaren beharrei. Ana Priede zinegotziak adierazten du, baita ere, espero duela hitzarmen hori, beranduenez, aurtengo abuzturako idatzita egotea, egoerak hala eskatzen duelako; eta esaten du zain dagoela ea udal teknikari juridikoak noiz egingo duen «14. Dike» eta «Kofradia» eremuetako planeamendu orokorraren aldaketa puntualari buruzko txostena, bere botoaren zentzua erabakitzeko.

Aipatua izan delako, alkateak hartzen du hitza eta adierazten du helburu eta irizpide orokorren onarpenaren gaiak ez daramala urtebete itxoiten; eta horren froga dela, esaterako, sortu berriak direla zerrendako bi helburu: «Aztertu eta zehaztea, egoki bada, beharrezko antolamendu-baldintzak, hiri-mugikortasuna hobetzeko Erribera kalea eta Bikamiotako errotonda lotuz» eta «Aztertzea aukera Bikamiota eremuko Kabi Alai eta Uriberri partzela kontsolidatutan eraikigarritasuna handitzeko».

Emeterio Iribar zinegotziak (EH Bildu) eskatzen du Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra dokumentu bizia izatea eta ez duela onartuko horren tramitazioa gehiago atzeratzea.



20:00ak direla, Lourdes Salsamendi Goñi zinegotzia (EAJ) inkorporatzen da bilkurara.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2018RAKO LANPOSTU ZERRENDAA ALDATZEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Eusko Jaurlaritzako Administrazio Erregistroen eta Toki Araubidearen Zuzendaritzak bidalitako idatziak ikusita landu da aldaketa-proposamena.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2018ko ekainaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira HAMABI BAIEZKO BOTO; gehiengo absolutua, beraz]:**

1.- ALDATZEA Orioko Udaleko funtzionarioen lanpostu-zerrenda, erabaki honen eranskinean ezarritakoaren arabera eta honako zentzu honetan:

- Udal kanpineko zuzendari lanposturako eta turismo, merkataritza eta ostalaritza departamenturako erdi mailako teknikari lanposturako eskatutako titulazioa honako hauetako bat izango da: Turismoa diplomatura, Enpresa eta jardura turistikoen teknikaria, Enpresen zuzendaritza eta administrazioa, Ekonomia eta enpresa-zientziak edo Antolakuntzako Ingeniaritza edo baliokideak; aipatutako guztiak diplomatura edota erdi mailako titulazio mailarekin (200 kodea).
- Udal kanpineko zuzendari lanpostuaren eta turismo, merkataritza eta ostalaritza departamenturako erdi mailako teknikari lanpostuaren betebeharrak espezifikak hauek dira: Ingelesko B2 hizkuntza-maila edo baliokidea izatea, eta B1 gidabaimena izatea.

2.- ARGITARATZEA lanpostu zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, jendeak jakin dezan, Toki Araubidearen alorrean indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Lege Dekretuaren 127. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Eusko Legebiltzarreko Legearen 16. artikuluan ezarritakoa betez.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL KANPINEKO ZUZENDARIAREN PLAZA JABETZAN HORNITZEKO HAUTAKETA PROZESUA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK ALDATZEA.



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Eusko Jaurlaritzako Administrazio Erregistroen eta Toki Araubidearen Zuzendaritzak bidalitako idatzia ikusita landu da oinarriak aldatzeko proposamena.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2018ko ekainaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

- 1.- Aldatzea Orioko Udaleko funtzionarioen plantillan hutsik dagoen udal kanpineko zuzendariaren plaza jabetzan hornitzeko deialdi publikoa, zentzu honetan: plazaren sailkapen azpitaldea A2 da.
- 2.- Aldatzea udal kanpineko zuzendariaren plazaren hautaketa prozesua arautuko duen lehenengo oinarria, deialdiaren xedeari dagokiona, zentzu honetan: plazaren sailkapen azpitaldea A2 da.
- 3.- Aldatzea aipatutako plazaren hautaketa prozesua arautuko duen bigarren oinarria, plazaren ezaugarriei dagokiena, zentzu honetan: plazaren sailkapen azpitaldea A2 da.
- 4.- Aldatzea laugarren oinarria, izangaien baldintzei dagokiena, f) puntua, eskatutako titulazioa honako hauetako bat izango dela adieraziz: Turismoko diplomatura, Enpresa eta jarduera turistikoaren teknikaria, Enpresen zuzendaritza eta administrazioa, Ekonomia eta enpresa-zientziak edo Antolakuntzako Ingeniaritza edo baliokideak; aipatutako guztiak diplomatura edota erdi mailako titulazio mailarekin
- 5.- Aldatzea bosgarren oinarria, eskaerak aurkezteko lekuen artean, besteak beste, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitakoak sartzen dituen.

Puntu honetan esan behar da erregistro elektronikoari buruzko xedapenak indarrean sartu arte, indarrean jarraituko dutela azaroaren 26ko 30/1992 Legearen (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen legea) 38.4 artikuluen aurreikusitako baliabide eta bitartekoak (39/2015 Legearen laugarren xedapen iraunkorra eta xedapen indargabetzaile bakarra).

Eskabideak aurkezteko epeari dagokionez, abuztua hilabete balioduntzat hartuko da.

Baita ere honakoa adieraztea: eskariarekin batera laugarren oinarriaren a) puntuan aipatutako senidetasunaren bat egiaztatzen duen dokumentua aurkeztu behar dela.

- 6.- Epaimahai kalifikatzaileari buruzko zazpigarren oinarrian, parte hartzeari uko egiteko eta epaimahaikideak arbuiatzeko ahalmena aipatzen da 39/2015 Legearen oinarrituz. Baina urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legea da irudi horiek xedatzen dituen (23 eta 24. artikulua).



7.- Aldatzea hautaketa prozesuari dagokion zortzigarren oinarria, lehiaketaldiari dagokiona; honela geratuko da:

8.2. Lehiaketaldia.

Lehiaketaldia: 31,5 puntu

Oposizioaldia gainditzeko duten hautagaiak merezimenduen fasera igaroko dira, zeinetan Epaimahai kalifikatzaileak eskabidean adieraziak izan diren hurrengo merezimendu hauek ebaluatuko baititu, baldin eta bosgarren oinarrian xedaturikoaren arabera behar bezala egiaztatuak izan badira, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna erreferentziazat hartuta:

— Lan eskarmentua, 10 punturaino gehienez.

a) Administrazio publikoan emandako zerbitzuak, bete behar den lanpostuarekin lotutako buruzagitzako ardurak betetzen eta kanpinen arduradun karguan eginak badira, hileko gehienez 0,20 punturekin (ez dira kontuan hartuko frakzio txikiagoak), gehienez 4,5 puntu osatu arte.

Lanaldi osoa ez den kasuan puntuazioa hainbanatu egingo da.

b) Administrazio publikoan emandako zerbitzuak, erdi mailako turismo teknikari funtzioekin bat datozenak, 0,10 puntu lan eginiko hilabete bakoitzeko (ez dira kontuan hartuko frakzio txikiagoak), gehienez 3 puntu osatu arte.

Lanaldi osoa ez den kasuan, puntuazioa hainbanatu egingo da.

Ondorio horietarako, zuzeneko harremanaren bidez, funtzionario gisa zuzenbide administratiboaren edo lan-itunpeko langile gisa eginak joko dira administrazio publikoan egindako zerbitzutzat atal honetan baloratzeko eraginetarako. Ez dira baloratuko, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 96.4 artikuluan xedaturikoaren arabera, pertsonal ebentualaren lanpostuetan egindako zerbitzuak, ez eta bekak eta formazioko praktikak ere.

c) Enpresa pribatuan emandako zerbitzuak, hornitu nahi den lanpostuaren antzeko arduretan: 0,05 puntu lan eginiko hilabete bakoitzeko (ez dira kontuan hartuko frakzio txikiagoak), gehienez 2,5 puntu osatu arte.

Lanaldi osoa ez den kasuan, puntuazioa hainbanatu egingo da.

— Formazio osagarria, gehienez ere 5 puntu.

Prestakuntza osagarria deialdiko lanpostuarekin zerikusia duena, Administrazio Publikoek antolatuta edo homologatuta; gehienez 5 punturekin baloratuko da, honako baremo honen arabera:



- 50 eta 100 ordu bitarteko ikastaroak: 0,75 puntu ikastaroko, orokorrean; lan taldeen kudeaketarekin zerikusia duten ikastaroak, 1,50 puntu ikastaroko.
- 101 eta 200 ordu bitarteko ikastaroak: 1,25 puntu ikastaroko, orokorrean; lan taldeen kudeaketarekin zerikusia duten ikastaroak, 1,75 puntu ikastaroko.
- 200 ordutik gorako ikastaroak: 2,5 puntu ikastaroko, orokorrean; lan taldeen kudeaketarekin zerikusia duten ikastaroak, 3 puntu ikastaroko.
- Atzerriko hizkuntzen ezagutza: 5,30 puntu gehienez baloratuko dira:
 - Ingeleseko C1 maila edo goragokoa egiaztatzea, 1,5 puntu gehienez.
 - Frantseseko C1 maila edo goragokoa egiaztatzea, 1,5 puntu gehienez.
 - Alemaneko C1 maila edo goragokoa egiaztatzea, 1,5 puntu gehienez.
 - Beste edozein atzerriko hizkuntzaren C1 maila edo goragokoa egiaztatzea, 0,80 puntu gehienez.
- 4. HE izatea 11,20 punturekin baloratuko da.

8.- Aldatzea hamabigarren oinarria, honakoa adieraziz: Proposatutako izangaiak gainditu dutenen zerrenda argitaratzen denetik hogeï (20) laneguneko epean aurkeztu beharko ditu hautaketa prozeduran parte hartzeko laugarren oinarrian adierazitako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak.

9.- Aldatzea hamalagarren oinarria, honakoa adieraziz: karrerako funtzionario izendatutako praktiketako funtzionarioak hogeï (20) lanegun izango ditu kargua hartzeko, izendapena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita.

10.- Hamabosgarren oinarrian, lan-poltsa bat sortzea aurreikusten da hautaketa prozesua gainditzen duten izangaiekin. Gainera, adierazten da lan-poltsa hori baliogarria izango dela antzeko titulazioa eskatzen duten lanpostuetako beharrak asetzeko.

Horri buruz gogoratzekoa da eratuko den lan-poltsa baliogarria izango dela, bakar-bakarrik, bete nahi diren lanpostuek deialdi honetako lanpostuaren betekizun berak dituztenean.

Era berean gogoratu behar da 2018ko maiatzaren 25ean indarrean sartu dela Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27 2016/679 Europar Araudia (EE), datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari



eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen, eta 95/46/EE Zuzentaraua (datuak babesteko Erregelamendu Orokorra), eta bertan aipamen berezia merezi duela 32. kontuan hartuzkoan ezarritakoa.

11.- Oinarrien I. eranskinean gaiak jasotzen dira. 15 gai orokor ezartzen dira eta 18 gai espezifiko; guztira, 33 gai. Horri dagokionez, 896/1991 errege-dekretuak dioena aipatu beharra dago eta horrek bere 8.3 artikuluan dio, B kidegoko Azpieskalan sartzeko, gutxienez 60 gai egon behar direla (B talde hori gaur egungo A2 Azpitaldearekin parekatuta dago EPOELaren hirugarren xedapen iragankorrak ezartzen duenari jarraituz). Ondorioz, beste 27 gai espezifiko eransten dira I. eranskinean; gai berriak honako hauek dira:

GAI ESPEZIFIKOAK

LEHEN TALDEA. EUSKADIKO LEGEDI TURISTIKOA.

19. Euskadiko Turismo Legea. Xedea, aplikazio-eremua eta helburuak.

20. Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Merkataritza eta Turismo Sailburuordetzaren turismo-eskumenak.

21. Euskadiko Turismo Administrazioaren egitura funtzionala.

22. Turismo Legearen garapena. Araudia.

BIGARREN TALDEA. EUSKADIKO ENPRESA ETA ESTABLEZIMENDU TURISTIKOEN JARDUEREN ARAUDIA.

23. Hotel-establezimenduen ordenamendua.

24. Kanpinen eta bestelako kanpamentu-modalitateen ordenamendua.

25. Baserri aldeko ostatu turistikoen ordenamendua.

26. Apartamentu turistikoen ordenamendua.

27. Aterpetxe turistikoen ordenamendua.

28. Euskadiko Enpresa Turistikoen Erregistroaren antolamendua eta funtzionamendua.

29. Bidaia-agentzien dekretua.

HIRUGARREN TALDEA. BESTELAKO ARAUDIAK.

30. Kontsulta-organoen araudia. Euskadiko Turismo Mahaia.



31. Turismo-erabiltzaileen eskubideen eta betebeharren araudia.

32. Erantzukizun Zibileko Aseguruei buruzko arauak.

33. Itourbask, Turismo Bulegoen Euskal Sarea.

34. Lurraldekako Araudi Turistikoa.

35. Eskualdeko garapen-agentziak.

36. Urola Kostako Udal Elkarteak.

37. Tokiko Araudi Turistikoa.

LAUGARREN TALDEA. ARAUDI AUTONOMIKOA ETA ESTATUKOA

38. Erabilera kolektiboko igerilekuen araudi sanitarioa.

39. Haur eta nerabeak atenditu eta babesteko Legea.

40. Ingurumenari buruzko araudia. Mendiei buruzko araudia.

41. Kontsumoaren alorreko oinarrizko araudia. Kontsumobide.

42. Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua.

43. Kostaldeko Legea.

44. Turismo Idazkaritza Nagusiaren egitura. Turespaña.

BOSGARREN TALDEA. TURISMO-MERKATUA.

45. Turismo eskaintza eta eskaera.

(*) Aipatu arautegietan aldaketak egiten badira, alor bakoitzean (eskari-orriak aurkezteko epea amaitzen den egunean) indarrean dauden testuak hartu beharko dira kontuan.

12.- Aipatutako goiko aldaketa horiez aparte, indarrean daude bere osotasunean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2018ko maiatzak 4; 85. zenbakia) argitaratutako udal kanpineko zuzendari plaza jabetzan betetzeko oinarriak eta deialdi publikoa.

13.- Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskariak aurkezteko beste 20 laneguneko epea ematea, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita. Eskariak eredu ofizial eta normalizatuaren arabera aurkeztu behar dira. Behar bezala aurkeztutzat joko dira 85. zenbakidun 2018ko



maiatzaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako aurreko deialdira aurkeztutako eskariak, betiere deialdiaren oinarriak betetzen badituzte.

14.- Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, jendeak jakin dezan.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, TURISMO, MERKATARITZA ETA OSTALARITZA DEPARTAMENTURAKO MAILA ERTAINEKO TEKNIKARIAREN PLAZA JABETZAN HORNITZEKO HAUTAKETA PROZESUA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK ALDATZEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Eusko Jaurlaritzako Administrazio Erregistroen eta Toki Araubidearen Zuzendaritzak bidalitako idatzia ikusita landu da oinarriak aldatzeko proposamena.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2018ko ekainaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- Aldatzea Orioko Udaleko funtzionarioen plantillan hutsik dagoen turismo, merkataritza eta ostalaritza departamenturako maila ertaineko teknikariaren plaza jabetzan hornitzeko deialdi publikoa, zentzu honetan: plazaren sailkapen azpitaldea A2 da.

2.- Aldatzea turismo, merkataritza eta ostalaritza departamenturako maila ertaineko teknikariaren plazaren hautaketa prozesua arautuko duen lehenengo oinarria, deialdiaren xedeari dagokiona, zentzu honetan: plazaren sailkapen azpitaldea A2 da.

3.- Aldatzea aipatutako plazaren hautaketa prozesua arautuko duen bigarren oinarria, plazaren ezaugarriei dagokiena, zentzu honetan: plazaren sailkapen azpitaldea A2 da.

4.- Aldatzea laugarren oinarria, izangaien baldintzei dagokiena, f) puntua, eskatutako titulazioa honako hauetako bat izango dela adieraziz: Turismoko diplomatura, Enpresa eta jarduera turistikoen teknikaria, Enpresen zuzendaritza eta administrazioa, Ekonomia eta enpresa-zientziak edo Antolakuntzako Ingeniaritza edo baliokideak; aipatutako guztiak diplomatura edota erdi mailako titulazio mailarekin

5.- Aldatzea bosgarren oinarria, eskaerak aurkezteko lekuen artean, besteak beste, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitakoak sartzen dituen.

Puntu honetan esan behar da erregistro elektronikoari buruzko xedapenak indarrean sartu arte, indarrean jarraituko dutela azaroaren 26ko 30/1992 Legearen (Herri



Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen legea) 38.4 artikuluen aurreikusitako baliabide eta bitartekoak (39/2015 Legearen laugarren xedapen iraunkorra eta xedapen indargabetzaile bakarra).

Eskabideak aurkezteko epeari dagokionez, abuztua hilabete balioduntzat hartuko da.

Baita ere honakoa adieraztea: eskariarekin batera laugarren oinarriaren a) puntuan aipatutako senidetasunaren bat egiaztatzen duen dokumentua aurkeztu behar dela.

6.- Epaimahai kalifikatzaileari buruzko zazpigarren oinarrian, parte hartzeari uko egiteko eta epaimahaikideak arbuiatzeko ahalmena aipatzen da 39/2015 Legean oinarrituz. Baina urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legea da irudi horiek xedatzen dituen (23 eta 24. artikulua).

7.- Aldatzea hautaketa prozesuari dagokion zortzigarren oinarria, lehiaketaldiari dagokiona; honela geratuko da:

8.2. Lehiaketaldia.

Lehiaketaldia: 31,5 puntu

Oposizioaldia gainditzen duten hautagaiak merezimenduen fasera igaroko dira, zeinetan Epaimahai kalifikatzaileak eskabidean adieraziak izan diren hurrengo merezimendu hauek ebaluatuko baititu, baldin eta bosgarren oinarrian xedaturikoaren arabera behar bezala egiaztatuak izan badira, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna erreferentziazat hartuta:

— Lan eskarmentua, 16 punturaino gehienez.

a) Administrazio publikoan emandako zerbitzuak, bete behar den lanpostuarekin lotutako buruzagitzako ardurak betetzen eta turismo, merkataritza eta ostalaritza arduradun karguan eginak badira, hileko gehienez 0,20 punturekin (ez dira kontuan hartuko frakzio txikiagoak), gehienez 7,20 puntu osatu arte.

Lanaldi osoa ez den kasuan puntuazioa hainbanatu egingo da.

b) Administrazio publikoan emandako zerbitzuak, erdi mailako turismo, merkataritza edo ostalaritza erdi mailako teknikari funtzioekin bat datozenak, 0,10 puntu lan eginiko hilabete bakoitzeko (ez dira kontuan hartuko frakzio txikiagoak), gehienez 4,80 puntu osatu arte.

Lanaldi osoa ez den kasuan, puntuazioa hainbanatu egingo da.

Ondorio horietarako, zuzeneko harremanaren bidez, funtzionario gisa zuzenbide administratiboaren edo lan-itunpeko langile gisa eginak joko dira administrazio publikoan egindako zerbitzutzat atal honetan baloratzeko eraginetarako. Ez dira



baloratuko, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 96.4 artikuluan xedaturikoaren arabera, pertsonal ebentualaren lanpostuetan egindako zerbitzuak, ez eta bekak eta formazioko praktikak ere.

c) Enpresa pribatuan emandako zerbitzuak, hornitu nahi den lanpostuaren antzeko arduetan: 0,05 puntu lan eginiko hilabete bakoitzeko (ez dira kontuan hartuko frakzio txikiagoak), gehienez 4 puntu osatu arte.

Lanaldi osoa ez den kasuan, puntuazioa hainbanatu egingo da.

— Formazio osagarria, gehienez ere 8 puntu.

Prestakuntza osagarria deialdiko lanpostuarekin zerikusia duena, Administrazio Publikoek antolatuta edo homologatuta; gehienez 8 punturekin baloratuko da, honako baremo honen arabera:

- 50 eta 100 ordu bitarteko ikastaroak: 1,20 puntu ikastaroko, orokorrean; lan taldeen kudeaketarekin zerikusia duten ikastaroak, 2,00 puntu ikastaroko.*
- 101 eta 200 ordu bitarteko ikastaroak: 2,00 puntu ikastaroko, orokorrean; lan taldeen kudeaketarekin zerikusia duten ikastaroak, 2,80 puntu ikastaroko.*
- 200 ordutik gorako ikastaroak: 4 puntu ikastaroko, orokorrean; lan taldeen kudeaketarekin zerikusia duten ikastaroak, 4,80 puntu ikastaroko.*
- Atzerriko hizkuntzen ezagutza: 7,50 puntu gehienez baloratuko dira:*
 - Ingeleseko C1 maila edo goragokoa egiaztatzea, 2,25 puntu gehienez.*
 - Frantseseko C1 maila edo goragokoa egiaztatzea, 2,25 puntu gehienez.*
 - Alemaneko C1 maila edo goragokoa egiaztatzea, 2,25 puntu gehienez.*
 - Beste edozein atzerriko hizkuntzaren C1 maila edo goragokoa egiaztatzea, 0,75 puntu gehienez.*

8.- Aldatzea hamabigarren oinarria, honakoa adieraziz: Proposatutako izangaiak gainditu dutenen zerrenda argitaratzen denetik hogeit (20) laneguneko epean aurkeztu beharko ditu hautaketa prozeduran parte hartzeko laugarren oinarrian adierazitako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak.

9.- Aldatzea hamalaugarren oinarria, honakoa adieraziz: karrerako funtzionario izendatutako praktiketako funtzionarioak hogeit (20) lanegun izango ditu kargua



hartzeko, izendapena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita.

10.- Hamabosgarren oinarrian, lan-poltsa bat sortzea aurreikusten da hautaketa prozesua gainditzeko izangaiekin. Gainera, adierazten da lan-poltsa hori baliogarria izango dela antzeko titulazioa eskatzen duten lanpostuetako beharrak asetzeko.

Horri buruz gogoratzekoa da eratuko den lan-poltsa baliogarria izango dela, bakar-bakarrik, bete nahi diren lanpostuek deialdi honetako lanpostuaren betekizun berak dituztenean.

Era berean gogoratu behar da 2018ko maiatzaren 25ean indarrean sartu dela Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27 2016/679 Europar Araudia (EE), datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen, eta 95/46/EE Zuzentaraua (datuak babesteko Erregelamendu Orokorra), eta bertan aipamen berezia merezi duela 32. kontuan hartuzkoan ezarritakoa.

11.- Aipatutako goiko aldaketa horiez aparte, indarrean daude bere osotasunean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2018ko maiatzak 7; 86. zenbakia) argitaratutako Turismo, merkataritza eta ostalaritza departamenturako maila ertaineko teknikariaren plaza jabetzan betetzeko oinarriak eta deialdi publikoa.

12.- Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskariak aurkezteko beste 20 laneguneko epea ematea, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita. Eskariak eredu ofizial eta normalizatuaren arabera aurkeztu behar dira. Behar bezala aurkeztutzat joko dira 86. zenbakidun 2018ko maiatzaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako aurreko deialdira aurkeztutako eskariak, betiere deialdiaren oinarriak betetzen badituzte.

13.- Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, jendeak jakin dezan.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EUSKARALDIA UDAL BARRUAN SUSTATZEKO ERAKUNDE-ADIERAZPENA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Erakunde-adierazpenak honela dio, hitzez hitz:

EUSKARALDIA UDAL BARRUAN SUSTATZEKO ERAKUNDE-ADIERAZPENA

Gipuzkoan bi hizkuntza ditugu ofizialak: euskara eta gaztelania. Begi bistakoa da, ordea, bi hizkuntzok ez daudela oreka egoera batean, ez esparru publikoan ez eta gizartean ere: gaztelania da nagusi. Uste dugu orain arteko ahaleginarekin



bakarrrik ez direla bi hizkuntzak parekatuko, indar gehiago jarri behar dugula hizkuntza berdintasuna bultzatzeko; euskara lehenetsi behar dugula, alegia. Izan ere, gizarte-, genero- eta hizkuntza-berdintasuna lortzea da Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako udalen erronketako bat, eta, horrenbestez, horretara bideratutako urratsak egitea behar beharrezkoa da.

Ildo horretatik, guztion elkarlanari esker, euskararen normalizazio-prozesuak azken hamarkadetan egin duen ibilbidea oparoa izan da eta emaitza begi bistakoa; egindako bidea ez da makala, baina, prozesu guztietan bezala, baditu pozik egoteko eta kezkatzeko arrazoiak.

2016. urtean egindako VI. Inkesta soziolinguistikoaren arabera, ezagutza datuek nabarmen egin dute gora azken hamarraldietan, baina erabilerak ez du neurri berean gora egin; izan ere, Gipuzkoan bizi den 2 urte edo gehiagoko biztanleriaren % 57,4 euskalduna da eta biztanleen % 73,3k euskara ulertzen du. Erabilera-datuek, aldiz, diote Gipuzkoan 16 urtetik gorakoen % 39,5ek hitz egiten duela euskaraz.

Orion, biztanleriaren % 76,68 euskalduna da eta % 85,85ak euskara ulertzen du. Erabilera, aldiz, % 63koa da.

Datuek adierazten digute euskararen normalizazio-prozesua inflexio puntuan dagoela, alegia, fase baten amaieran eta beste berri baten atarian gaudela. Fase berri horretan, argia erabileran jarri beharra agerikoa da, beraz.

Eta horretarako, euskararen ulermenari ez diogu behar besteko baliorik eman; izan ere, erabileraren korapiloa askatzeko gako nagusi bat ulermenean dago. Alegia, euskararen ulermena balioan jarriz gero, eta ulermena erabat zabalduz gero, euskararentzat eta gipuzkoarrantzat erabilerarako eremu zabal eta emankorra zabalduko dugu. Izan ere, Gipuzkoako udalerrri gehien-gehienetan ulermena %80tik gorakoa da, eta gainerakoetan biztanleen % 60tik gora ulertzen du euskara.

Euskaraldia, 11 egun euskaraz, azaroaren 23tik abenduaren 3ra

Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Topaguneak beste hainbat eta hainbat eragilerekin elkarlanean, abian jarri dugu Euskaraldia ekimena, baita gure udalerrian ere, eta ekimen hori garatzeko batzordea osatu.

Ekimen horretan 11 egunetan hizkuntza-praktika berri bat gauzatzera gonbidatuko ditugu herritarrak. Ariketa horren subjektuak 16 urtetik gorako helduak izango gara eta 11 egunez helduen hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa kolektibo bat egitea da proposamena, ulermena balioan jarrita.



Bi subjektu mota bereizi dira: ahobiziak eta belarriprestak.

Ahobiziak izango dira 11 egun horietan euskarari eutsiko diotenak solaskideak euskaraz ulertzen duen guztietan, eta, belarriprestak, berriz, solaskideak gonbidatuko dituzte berarekin euskaraz aritzera, nahiz eta belarriprestak euskaraz edo gaztelaniaz erantzun.

Ekimenaren helburua da, besteak beste, ariketa praktiko horren bidez ikusaraztea eta bizi-araztea hizkuntza-ohiturak alda ditzakegula, eta, ahal dela, 11 egun horiek pasa ostean, hizkuntza-praktika berri horiei eustea.

Euskaraldia Gipuzkoako Foru Aldundian eta Udaletxeetan

EAEko euskararen erabilera normalizatzeko V. Plangintzaldiak honako datu hauek jasotzen ditu, amaierako ebaluazio-txostenean:

- Gipuzkoako ordezkari politikoen % 90,4 gai da euskara ulertzeko eta % 86,8 euskaraz hitz egiteko.*
- Gipuzkoako langile publikoen % 86,8k ongi edo oso ongi hitz egiten du euskaraz.*

Aipatutako datuak eta Gipuzkoako egoera soziolinguistikoa aintzat hartuta, erabileran eragiteko baldintza egokiak ditugu Gipuzkoan. Euskaraldia, berriz, aukera egokia dugu Gipuzkoako erakunde publikoek, eta, beraz, arduradun politikoek dagokigun erantzukizuna geure gain hartzeko eta eredugarritasunez jokatzeko, erabileran urrats berriak egite aldera.

Horregatik guztiagatik, honako hau aurkezten dugu:

ERAKUNDE ADIERAZPENA

Orioko Udalak honakoa adierazi nahi du:

- Orioko Udalbatzak bat egiten du Euskaraldiarekin eta ekimenaren sustatzaile izango da. Horrenbestez, erantzukizunez eta eredugarritasunez jokatzeko konpromisoa hartzen du.*
- Ordezkari politikoon egiteko nagusia izango da Euskaraldiaren markoan eta bereziki udal barrura begira ekimena zabaltzea. Horrenbestez, ekimen honetan ahalik eta ahobizi eta belarriprest gehien aktibatze urratsak emango ditugu, arduradun politikoak izan nahiz langileak izan.*
- Ahobiziok euskara ulertzen duten guztiekin euskaraz aritzeko konpromisoa hartzen dugu.*



- Belarriprestok, gainerakoak gonbidatuko ditugu gurekin euskaraz egin dezaten, nahiz eta guk euskaraz edo gaztelaniaz erantzun.
- Orioko Udalak neurriak hartuko ditu hizkuntza-praktika horiek posible izan daitezen eta praktika horiei etorkizunean eutsi ahal izateko.
- Orioko Udalak, udal barruan ez ezik udalerrian ere, ekimenaren sustatzaile gisa, herritarrek gonbidatuko ditu Euskaraldiko ekimenean parte har dezaten eta izena emateko bideak erraztuko ditu.
- Orioko Udalak, bat egiten du ekimena Gipuzkoan elkarrekin, elkarlanean eta batera garatzearekin, lurralde mailako politika bateratu bati begira, ahalik eta udal gehienetan, mankomunitateetan, Gipuzkoako Foru Aldundian eta Gipuzkoako Batzar Nagusietan.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Euskara eta Hezkuntza batzorde informatzaileak 2018ko ekainaren 5ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA EUSKARALDIA udal barruan sustatzeko erakunde-adierazpena, goian jasota dagoen bezalaxe.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du EUSKARALDIAn parte hartuko duen Udalaren Hamalauko bat osatzea proposatzen duela (13 zinegotziak + euskara teknikaria), traineruko hamalau kideen irudira; eta, kontuan hartuta EUSKARALDIAk «belarriprest» figura prestigiatu nahi duela, berak erabaki duela «belarriprest» gisa parte hartzea azaroaren 23tik abenduaren 3ra egingo den ekitaldi horretan.

7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EH BILDU TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, JOSU ARRUTI ORIOTARRARI BABESA ETA ELKARTASUNA ADIERAZTEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak honela dio, hitzez hitz:

MOZAL LEGEA KENTZEKO ETA LEGE HONETAN OINARRITUTAKO ZIGORRA JASAN DEZAKEEN JOSU ARRUTI ORIOTARRARI BABESA ETA ELKARTASUNA ADIERAZTEKO MOZIOA.

Iragan maiatzaren 23tik 25era Turismoaren Mundu Erakundearen goi-bilera egin zen Donostian. Goi bilera zen bitartean Donostiako Tabakaleran hainbat ekitaldi egin ziren Turismoaren Mundu Erakundeko Kontseilu Exekutiboak antolatuta.



Donostiakoa Erakundearen 108. bilkura izan zen eta 70 estatutatik etorritako 300 ordezkariak gora bertaratu ziren.

Halaber, "Bizitza da handiena" lelopean 63 eragilek babes adierazitako beste egitarau bat ere aurrera eraman zen egun bertsuetan Donostian bertan. Eragileek eurek antolatutako egitaraua zuten, non bakoitzaren dinamikak plazaratu, eztabaidatu eta esperientziak partekatzeko baliatu eta, aldi berean, Turismoaren Mundu Erakundeak ezarritako hainbat politika, euren iritziz, okerrak direla azaldu nahi zuten. Egitaraua bera, eragileen aniztasunaren isla zen: turismo eredu honen aurkako auzokideak, erraustegiaren aurkako mugimendua, mugimendu feminista, pentsiodunak, etxebizitza duinaren aldeko mugimendua...

Dinamika guztiak modu baketsuan egin ziren eta ez zen indarkeriarik erabili ezta halakorik sustatu ere.

Maiatzaren 24an, ordea, herritar talde bat txilibitua joz joan zen Tabakalerara, bertan Mundu Erakundeko goi-bilera parte hartzen ari ziren kideak luntxa baitzuten. Tabakalera kanpoan zirenean ertzainak protestara joan zirenak identifikatzen hasi ziren. Tartean, ertzainei euskaraz egiteko eskatu zien pertsona bat hartu eta besteengandik bereizi zuten.

Baten eta besteen bultzaden artean, hala ere, ertzainek bi herritar atxilo hartu eta komisariara eraman zituzten. Grabatuta dauden eta publikoak diren irudietan ikusten den moduan, ez zen indarkeriarik erabili protestan zirenen partetik eta ez zen horretarako asmorik. Hala ere, bi gazte zarautzarrak bortizki atxilotu eta eginbideak ireki zizkieten, Mozal legean oinarrituta.

Oraindik akusaziorik ez duten arren, horiek dira komisariatik ateratakoan adierazitakoak.

Martxoaren 30eko 412015 Herriarren Segurtasunerako Lege Organikoa, Mozal legea moduan ezagunagoa dena, Euskal Herriko eragile askok kentzeko eskatu duen legea da.

PPk lanaren arloan, hezkuntzan, gizarte zerbitzuetan, osasunean, etxebizitza eskubidearen arloan edota bestelako politika publikoetan herritarrek duten aurkakotasuna kalean adierazteko aukerarik gabe eta protesta egiteko eskubiderik gabe eta isilik utzi nahi izan zituen herritarrek lege hau bere gehiengo absolutuaz onartu zuenean.

Segurtasunaren aitzakiarekin, eskubide zibil eta politikoak murriztu zituen, herritarrek susmopean jarri, isunak handitu, poliziak autoritatearen jaun eta jabe izendatu eta euren erabakiak eztaba daezin bihurtu zituen. Finean, ezberdin pentsatzen duenari euren kexak bideratzeko eskubiderik gabe uztea zen asmoa.



Kongresuaren eta Senatuaren aurrean elkarretaratzeak egiten zituzten herritarrei zigorrik ez jartzea exijitu zuen bere momentuan PSOEek eta baita gobernura iritsi orduko lege hau indargabetuko zuela hitz eman ere,

Ezinbestekoa da, beraz, lege hau bertan behera utzi eta, izaera errepresiboa izan beharrean, eskubide zibil eta politikoa defendatzeko izaera izango lukeen lege berri bat egitea, herritarren segurtasuna bermatzearekin batera, ez baitu honek aurrekoaren baldintzatzaile zertan izan. Lege berri bat, finean, indarra adierazpen askatasunean eta eskubideen gauzatzean jarrita, ez horien murriztean. Mozal legeak salbuespen egoerak betikotu eta oinarrizko eskubideak urratzen ditu.

Horregatik, Orioko Udalak honako MOZIOA onartu du:

- 1.- Orioko Udalak martxoaren 30eko 41/2015 Herritarren Segurtasunerako Lege Organikoa, Mozal legea moduan ezagunagoa dena, kentzeko eskatzen du.*
- 2- Lege honen ondorioz kaltetuak izan daitezkeen herritarrei, Mikel Zabaleta Fernandezi eta Josu Arruti Agirreri, gure babesa eta elkartasuna adierazten diegu. Halaber, lege honek sor liezazkieken ondorioetan laguntzeko prestutasuna adierazten dugu, aurretik auzia zein egoeratan den jakitera emanda eta konponbide bat lortzeko beharrezko pausoak emanda.*
- 3- Akordio honen berri emango diegu bi herritarrei, Gipuzkoako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari, Gasteizko Legebiltzarrari, Arartekoari, eta Madrilgo Kongresuari eta Senatuari.*

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA EH Bildu talde politikoak aurkeztutako mozioa, Josu Arruti oriotarrari babesa eta elkartasuna adierazteko, goian jasota dagoen bezalaxe.

8.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Lourdes Salsamendi zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta eskatzen du ahalik eta azkarren tramitatzea udal kanpineko zuzendari lanpostua eta turismo, merkataritza eta ostalaritza departamenturako erdi mailako teknikari lanpostua betetzeko espedienteak.

Emeterio Iribar zinegotziak hartzen du hitza, EH Bilduren izenean, eta hiru gairi buruz galdetzen dio alkateari:



1.- Autokarabanak instalatzeko eremu bat egokitzearen gaiak ia urtebeteko atzerapena daramala esaten du. Eugenio Cotadok erantzuten dio esanez gaia gertutik segitzen ari dela, EKPre lehen erantzuna ezezkoa izan dela eta, hori dela-eta, udal arkitektoa alternatibak aztertzen ari dela.

2.- Autokarabanak aparkatzea erregulatzeko araudi bat prestatu behar da eta ea hori zertan den galdetzen du.

3.- Emeteriok salatzen du Arraunetxeko hipoxia-gelan izandako arazoen berri posta elektronikoz jakin zutela eta hori ez dela bide egokia; Emeteriok dio horrelako gaiak aztertzeko tokia batzorde informatzailea dela (kirolekoa, kasu honetan, edo dagokiona), eta hor azaldu eta azertu behar direla gaiak, propio bilkura deituta.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrerera bertaratutako pertsonetako batzuk hitza hartu eta gero, alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei eta bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,